

OSKAR GOÑI BERA KO ZINEGOTZI ETA UDALBILTZAKO BOZERAMAILEA

«Udalbiltzak euskal herritar gisa bizi nahi dutenei babes instituzionala emango die»

Larunbatean Naziotasun Aitormena bideratzeko mintegi bat antolatu du Udalbiltzak, Kursalen batzarrean onartutakoari jarraiki. Aberri Eguna baino lehen zenbait udaletan prozedura abiatzeko mozioak onartzea espero du, Oskar Goñi bozeramaileak dioenez.

Pello Urzelai | BERA

Berako Udaletxeko batzar gelan elkartu gara. Oskar Goñi Berako zinegotzia da (EHkoa, gobernu taldekoa). Kursalen Udalbiltzak egin zuen batzar orokorrean batzorde eragileko kide aukeratu zuten. Udalbiltzako bozeramaileetako bat da eta Nazio Identitatea arloko arduraduna.

■ **Kursalen egindako batzar orokorrean Udalbiltzak euskal nazionalitatea adierazten duen agiri bat bultzatzeko konpromisoa hartu zuen. Zergatik?**

Euskalduna jauregian Udalbiltzaren batzar eratzailean markatutako lan ildo orokorrean Udalbiltzaren zereginen artean Euskal Herriaren nortasuna aldarrikatzea aipatzen zen. Euskal Herriak nazio gisa bizitzeko eskubidea dauka eta herritarrek naziotasuna aldarrikatzeko eskubidea daukagu. Herritarrek beren burua euskal herritar gisa eta nazio horren kide gisa agertzen duten aitormen bat bultzatuko du Udalbiltzak.

■ **Badago euskal herritarren aldetik halako nahi edo beharra?**

Aspalditxo badago euskal gizartean euskal herritar gisa agertzeko nahi hori. Ikusi dugu azken hiruzpalau urteetan ENA elkarteak nortasun agiriaren inguruan egindako lan aitzindaria eta behar horren pizgarria izan dena. Bestetik, azken hilabeteetan Bai Euskal Herriari herri ekimenak egindako sinadura bilketa erraldoia adierazgarria izan da. Horiei erantzuna eman behar zaie. Udalbiltzaren asmoa euskal herritar gisa bizi nahi duten herritarrei eta Euskal Herria nazioa dela aitortzen duten horiei babesa ematea da. Udalbiltzak orain arte herri ekimenek bultzatutako bide horretan lekukoa hartu eta urrats bat haratago egin behar du. Orain arte sinbolikoki defendatu duguna nazio instituzioaren babesarekin gizarteratu nahi dugu, behar den seriotasunarekin eta behar den indarrarekin.

■ **Udalbiltzak Naziotasun Aitormena bultzatu du? Zerga-**



OSKAR MONTERO

“Euskal Herriko Naziotasun Aitormena egiteko mozio araudi bat zenbait udaletan Aberri Eguna baino lehen onartzea nahi dugu»

SAKELEKO EUSKARRIA

“Sakelako euskarria Naziotasun Aitormena idatzita eramateaz gain identifikazio txartel gisa erabili ahal izango da»

tik hobetsi duzue izendapen hori, nortasun agiriaren aldean?

‘Nortasun agiria’ orokorregia izan daiteke. Gure ustez, munduan zehar gehienetan erabiltzen den eta zuzenbidean arau-

tua dagoen terminoa *naziotasuna* da. Nazioarteko legeriaren arabera denok daukagu naziotasuna izateko eskubidea. ‘Naziotasun Aitormena’ terminoa, beraz, zehatzagoa izan daiteke. Bestalde, agiria hitza ere erabil-

tzen dugu, ez da mugagarria. Guk aukeratu ditugun izendapenak hauexek dira: Euskal Herriko Naziotasun Aitormena edo Euskal Herriko Naziotasunaren Aitormenaren Agiria.

■ **Aitormen hitzak adierazten al du norberak borondatez aldarrikatu nahi duen zerbait?**

Naziotasuna arautzeko erabiltzen diren irizpideak jaioterria edo jatorria izaten dira. Gure ustez, naziotasuna borondatezko atxikimenduan oinarritzen da. Pertsona batek bere herriarekiko edo bere nazioarekiko daukan atxikimendua erakusten duena. Aitormen hori borondatezko adierazpen bat da, norberak bere burua nazio horren kideatzat jotzen duena.

■ **Nola bideratuko da naziotasun aitormen hori? Epe laburrean izango da?**

Udalen eta udal hautetsien bitartez martxan jarriko dugu aitormena egiteko prozedura bat. Heldu den larunbatean, 24an, hitzordu bat jarri dugu hautetsi guztiak prozedura hori nola egingen den zehazteko. Nahi dugu Aberri Eguna baino lehen zenbait udaletan Euskal Herriko Naziotasun Aitormena egiteko mozio araudia onartzea.

■ **Udalek izango dute zeregin garrantzitsua Naziotasun Aitormena bideratzean?**

Egitasmo hau bultzatzeko giltzarria udalak eta udal hautetsiak izango dira. Guk mozio bat proposatzen dugu. Mozio horretan azaltzen da zer den Euskal Herriko Naziotasun Aitormena eta udalak hori gauzatzeke hartzen duen konpromisoa. Euskal Herri osoan bultzatu nahi dugu egitasmo hau eta badakigu eskualde eta herri guztietan ez daudela baldintza berak. Segur aski baldintza hobekak dauden eskualdeetan udalek eta udal hautetsiek gaitasuna izango dute egitasmoa martxan jartzeko epe laburrean. Aberri Eguna baino lehen zenbait herritan mozioa onartzea eta apirilaren amaierarako aitormenaren agiria tramitatzea espero dugu zenbait udaletan. Guk guztietan bultzatuko dugu, Eus-

kal Herriko herritar guztiei bere eskubide hori aitortu nahi diegu eta mozioa ez onartzeagatik hautetsi batzuek mozio araudi horretan agertzen den prozedura beren gainean hartuko dute eta ahal den bezain laster bideratzen saiatuko dira. Eskualde batzuetan zailtasunak badaude Udalbiltzak aurreikusi beharko du bulego batzuk irekitzea zuzenean zerbitzu hori eskaintzeko.

■ **Balio praktikoa izango du Naziotasun Aitormen horrek?**

Udalbiltzaren zeregina herritarrek egiten duten adierazpen bati babesa ematea da. Horretarako agiri bat esleitu dugu, baina agiriarekin batera herritarri sakelako euskarri bat emanen zaio. Naziotasunaren Aitormen gisa balio duena Udalbiltzaren agiri ofizial hori izango da, baina erosotasunagatik sakelako euskarria ere egingo dugu. Sakelako euskarri hori Naziotasun Aitormena eramateaz gain identifikazio txartel gisa ere erabiliko da. Behar den seriotasunarekin eta fidagarritasunarekin egingo denez, txartela eramaten duen pertsona hori identifikatzeko tresna bat izango da. Udalbiltzak elkarrizketa lan bat egin beharko du gizarte eragileekin agiri hori aintzat har dezaten pertsonak identifikatzeko tresna baliagarri gisa, eta herritarrek beraiek eguneroko erabilerarekin baliagarritasuna berretsiko dute eta horrek emango dio benetako indarra. Desobedientzia zibilarren aldeko jarrerak egon daitezke, herritarrek nahi duten tokiraino eramateko aukera irekiz.

■ **Euskal naziotasuna adierazteko ekimenen inguruan bazterketa hitza aipatzen dutenean, zer deritzozue?**

Gure lana euskal herritarrek egingo duten adierazpen bati babes instituzionala ematea da. Guztiz borondatezko atxikimendu bat izango da eta inor ez da behartuko ezer egitera. Guk nahi dugu euskal herritar gisa bizi nahi dutenei bere naziotasuna aitortzeko bide bat eskaini, besterik gabe, eta bide hori hautatzen ez dutenenganako ez dugu inongo bazterketarik planteatzen. Estatu frantziarrak eta espainiarrek, naziotasuna inposatu egiten diguten horietan, paradoxikoki, bortxaketaren inguruko hitzak eta adierazpenak egiten dituzte.